


**Agur
Emile!**



drogeteniturri

TOKIKOM

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 191. alea 2011ko ekaina

 "Adituak gara ondo elikatzen irakasten"
 AINARA IRIONDO ANSOLA
 Giza elikaduran eta Dietetikan Diplomatu
 Komentukua 1, behe. 943 17 63 72

 LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44

Irale
 hortz klinika
Leire Irazu Garitaonandia

- Ortodontzia
- Aho zirujia
- Pedriodontzia
- Inplanteak
- Odontologia orokorra

Zeharkale 8, behe 943 17 71 34
 www.irale.com

UME ETA HELDUENAKO
**PSIKOLOGIA
 KABINETEA**

 **Arrate
 Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
 a_garitaonandia@terra.es

 **san pelayo**
 clínica dental hortz klinika

Inplanteak
 Ortodontzia
 Periodontzia
 Hortz-zuriketa / Estetika dentala
 Odontologia orokorra
 Protesiak
 P.A.D.I. - I.M.Q. - SANITAS

San Pelayo 5, 1. Olatz Garcia Arregui
 Ermua (Bizkaia) 943 17 04 04

OSASUN GIDA

 NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea



Hortz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Tel.: 943 030 512
 Ermua niklinika@gmail.com

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13,behea
 48260 ERMUA (Bizkaia)

NATURA 
 Cristina García Pérez

Belar-denda eta dietetika

- Elikagai biologikoak
- Terapia naturalak
- Naturopatarekin kontsultak
- Masajeak
- Dietistarekin kontsultak
- Kosmetika biologikoa

Zeharkale 12 behe esk. · ERMUA
 943176594/naturcriss77@hotmail.com

Yoga eskola

Arnasketa eta ariketa fisiko egokiak
 Erlaxazioa eta meditazioa
 Osteopatia eta bertebrologia
 Anginak sendatzeko masajea

 **Sanatana
 Dharma**

San Roke 24, behe
 943 74 85 93
 685 722131 (Idoia) - 639 652729 (Lourdes)

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50
 edo 688 63 28 76 telefonora

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)
247 posta-kutxa
943 17 93 50.

drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.org

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Estibalitz González, Asier Ibaibarriaga eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Ana García
eta Miguel Alcoba.

LAGUNTZAILEAK:

Koldo Aranberria, Amaia Arriaga, Fede Iturriagagoitia, Patxi López, Ioritz Rasero, Valentín Mugarza eta Udal Liburutegia.

ARGAZKIAK:

Artarrai MT, Alazne Aiestaran, Igone Amesti, Ibaia Azagirre, Asier Ibaibarriaga, Juan Antonio Izagirre, Ainhoa Lasuen, Valentín Mugarza, Itsaso Pradera eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

688 63 28 76.

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Tamara Lorente, Nora Mateos eta Xabat Uzuriaga.

TIRADA:

2.200 ale.

ISSN:

11 33-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/94.

Drogeteniturrrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

ARGI-OILARRA *Abubilla Upupa epops*

Ez dago besteren batekin nahasterik: buru gaineko bere gandor lumatsu horrek, abaniko legez zabaltzen duena aztoratuta dagoenean, hegazti guztietatik desberdintzen du. Polita da hegan doanean, hegoetako lumaje zuri-beltza bra-bra astinduz. Baina bere edertasunak liluratuta gerturatzen bagara, atzera egin beharko dugu: usaina hain du eskasa eta ustela! Kakalardoak, matxinsaltoak, euliak, armiarmak eta txindurriak jaten ditu eta azkenok sortzen omen diote hats desatsegin hori. "Pu-pu-put" baxutxo bat da bere soinua, orratzan moduko bere moko luze zorrotza larregi zabaldu barik egiten duena. Norberak uste gutxien duen lekuan agertu daiteke; behin baino gehiagotan Hanbren, Santamañan eta Untzaman ikusi izan ditut, iraila-urria aldera, pase denporan.



Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO4	KIROLZALE17
San Pelaioko jai batzordea	Arroilen jaitsiera Pirinioetan
ELKARRIZKETA5-9	IRITZIA18
Carlos Totorika eta Mila Mondragon	Jada, hasi da udako denboraldia
MALLABIAN ZER?10-11	SALEROSKETAK19
Garazi Mugarza	Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA..12-13	ANTZINAKOAK.....20
17 urteko semea urtebetez etxean	Ermuko eta Mallabiko argazkiak
MOTZEAN15	KALEKO INKESTA21
'Atara zarata' kamisetak	Ermuko eta Mallabiko jendearen iritzia
BOTEPRONTOAN16	AGENDA22
Alberto Lasuen	Santixau aurrekoak

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

San Pelaioiko jai batzordea

Ekainaren 26an San Pelaio eguna ospatuko da eta horrekin batera COFISAPEk, edo San Pelaio auzoko jai batzordeak, hainbat ekitaldi burutuko ditu aste osoan zehar.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Aspaldi hasi ginen San Pelaioiko jaiak antolatzen baina taldea 2005ean erregistratu zen. Aldapa Elkarteko kideek hartu zuten hasieran honen ardura (tartean Antonio Rivera) eta duela 10 bat urte Paco Pérezek hartu zuen. Egun Xabier Pérez da taldeko lehendakaria.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun 6 edo 7 lagunek osatzen dugu taldea.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

San Pelaio 14 urterekin hil zuten martiria izan zen. Horregatik gure auzoko jaiak umeei zuzenduta daude eta eurak ondo pasatzea da gure helburua. Martiriaren historia ezagutu dezaten ere nahi dugu eta urtero kontatzen diegu. Horretaz gain, nagusientzako ekitaldiak prestatzen ditugu eta etorkinen integrazioa bultzatzen dugu.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?



Jaiak ospatu baino 2 hilabete lehenago hasten gara lanean. Egia esan, urte batetik bestera ez da aldaketa nabarmenik egoten jai egitarauan eta horrek gure lana errazten du.

- Zer nolako ekitaldiak antolatzen dituzue?

Astelehenetik ostiralera bitartean umeentzako jolas didaktikoak eta dibertimenduzko jolasak eskaintzen ditugu, hala nola bideko segurtasun-arauak lantzen dituzten jolasak. Asteburuan, berriz, goizean umeentzako ekitaldiak daude eta arratsaldean helduei zuzendutakoak. 2010ean motoren erakustaldia egin genuen baina aurten ez dago horretarako aurrekon-

turik. Bizilagunen bazkariak, ordea, sekulako arrakasta izan zuen iaz: 300 lagunetik gora bildu ginen! Duda barik aurten ere bazkaria egingo dugu, auzoko arteko konfiantza sendotzen laguntzen duelako. Gainera parkean leku aproposa dugu horrelako ekimen jendetsuak burutzeko eta euria eginez gero, estalirik dagoen pergolara joan gaitzke.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Taldea zabalik dago eta parte hartu nahi duten guztiak ongi etorriak izango dira. Lekukoa eskuz aldatzeko desiratzen gaude, gazteek hartu behar dutelako honen ardura.

Dorleta Vidal

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA CERYECERIA
NHECH

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
bereizitasuna

943 17 39 78



Carlos Totorika:

“Krisiari aurre egitea, horixe da lehentasuna”

Ermuko alkatea, ekonomista, garai batean BBKn izan zen lanean. Azken legegaldian gehiengoarekin agindu ostean, legegaldiari berriari PPrekin egindako itunarekin ekin dio. Urte hauetan guztietan egindako gogoetak eta etorkizunerako erronkak izan ditugu mintzagai.



Mila Mondragon:

“Zalantzak genituen, baina hau izan da herriaren nahia”


Mallabiko alkatea abadiñarra da jaiotzez, baina duela 20 urte etorri zen Mallabira, 28 urterekin. Senarra bertakoa du eta 18 urteko seme baten ama da. Lehen Hezkuntzako irakaslea da eta gustukoa du bere lana, baina beste aukera hau suertatu zaio eta aurrera egitea ezinbestekotzat jo du.

1. Balorazioa.
2. Asmoak.



Fernando Lecumberri
PP (4 zinegotzi):

1. Nahiko pozik gaude. Orain arte genituen 4 ordezkariak mantendu ditugu eta botoetan ere zerbait igotzea lortu dugu. Gure helburu nagusia PSEri gehiengoa kentzea zen eta lortu dugu.
2. PSErekin akordioa egin dugu Udalari egonkortasuna emateko. Orain arteko lana egiten jarraituko dugu. Alkarlanari eutsiz, alkateak esan dituen lehen-tasunei aurre eginez.



Txikito Sarasua
BILDU (3 zinegotzi):

1. Oso pozik gaude emaitzekin. Babes oso zabala izan dugu eta zerrenda ere halakoa osatzen saiatu gara. Adin tarte ezberdineko eta sentsibilitate anitzeko aukera izan da gurea.
2. Gure helburua da, gure programan jarritako asmoengatik lana egitea. Euskara, gazteria, etxebizitza, langabezia... Azken finean, herritarren ahotsa Udalera iristea eta ermuarren alde lana zintzo eta ondo egitea.

- Zein da maiatzaren 22an zure alderdiak Ermuan izandako emaitzez zuk egiten duzun balorazioa?


Onartu beharra daukat emaitzak ez direla guk uste genituenak izan. Bi zinegotzi galdu ditugu, eta uste dut galera hau krisi ekonomikoak eta Bilduren presentziak eragin dutela batez ere, eta ez herriaren kudeaketan egin dugun lanak. Hala ere botoen %37,67 lortu dugu eta horrek herriak guregan duen ilusio eta konfiantza adierazten du.

- 1991tik zara Ermuko alkatea. Zein balorazio egiten duzu urte hauetaz?

Balorazioa oso positiboa da. Urteen poderioz makina bat aurrerapen eman dira alor ezberdinetan. Arlo ekonomikoan adibidez, hiri barruan genituen enpresa asko poligonoetara atera dira, aparkatzeko izan diren arazoak ere hobetzen gabiltza, emakumeen topalekua ere eraiki da, formaziorako etengabeko hobekuntza sustatu da, kirol instalakuntzak, zinema... gauza gehiago ere egin zitezkeen baina dudarik gabe 20 urtetan makina bat gauza egin dira.

- BBK-n ari zinela lanean, 1991an hura utzi eta honetan hasi zinen...

Hasierara batean 4 urterako aurkeztu nintzen eta hemen jarraitzen dut. Askotan 6-8 urtetako proiektuak suertatzen dira esku artean eta horrek luzapena eskatu zi-



dan. Gustura ari naiz, ez daukat aukera egin izanaren damurik.

- Udalaren osaketak aldateketak izan ditu. Zein ondorio ekarriko ditu horrek?

Azken hauteskundeetan gehiengoa lortu dugu berriro ere (botoen %37,67, 6-7 zinegotzi), baina ez dugu gehiengo osoa lortu. Bizi dugun krisi garai honetan ez dut uste gutxiengoan gobernatzea komenigarria denik. Horrek zalantza eta arazoak sortzen ditu eta horregatik ituna eskaini diogu PP, EAJ eta EBri. Itun honek ermuarren arazoak konpontzeko aukera emango digu, paralizatuta egon barik. Udalari

dagokionez, Bildu izan da berrikuntza nagusia. Politika egiteko aukera denek izan behar dutela uste dut, baina oraindik politika egiteko duten aukera hau horrela dela erakutsi beharko digute.

- Zeintzuk dira legealdira-ko erronka nagusienak?

Bizi dugun krisi egoerari aurre egitea da lehentasuna. 1.050 langabe inguru ditugu herrian eta enpresek ere ez dituzte momentu onenak bizi. Automozioa nagusi den bailara da gurea eta pixkanaka lehiakortasuna galtzen joan gara, beste Europako eta Asiako herrietara bideratu dute multinazionalak beraien eskulana eta lehiakor izateko garaiak iritsi zaizkigu berriro ere. Horretarako formazioa eta inbertsioak dira giltza eta horri eman diogu lehentasuna.

“Krisi garaian ez da komenigarria gutxiengoan gobernatzea”

MENDIOLA
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19
Telefona 943 17 22 43

48260 ERMUA
(Bizkaia)

KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

“Hartu duen bideari eusteko gai dela erakutsi beharko du Bilduk”

- **Gazteria, emakumeak, etorkinak... horiei begiratu zer egingo du Udalak?**

3,8 milioi inbertitzen ditugu urtero kolektibo haue-tako langabetuei formazioa eta arreta eskaintzeko. Euskadi mailan, Berdintasunerako 1. Plana egin dugu eta baita 1. Emakumearen Etxea. Gazteentzako 57 apartamentu ipini ditugu alokairuan, rock lokala, skate board pista eta kirol instalakuntza ikaragarriez gain.

- **Herritik urrun dagoen Udala daukagula esaten da...**

Duela 10 urte sortu zen Ermuan Emakumearen Berdintasunerako Batzordea, Euskara Batzordea, Jai eta Kultura Batzordea eta Hiri-gintza Batzordea. Gainera, azken urtean epe luzean lortu nahi duen herria sortzeko lanean dihardugu (en-

plegu, hezkuntza eta ‘hiria-ri’ dagokionez). Hala ere, ditugun baliabideak hobetu eta berriak sortu behar ditugu.

- **Ermuko antzokiaz eta Ermuko saihebidiaz zer diozu?**

Ermuko Antzokia urteeta-ko lanaren ondorio izan da. Txukun geratu dela uste dut eta Ermuko antzerki, musika eta dantza taldeentzako eraikin txukuna geratu da. Horrez gain, Eibarrera joan gabe eskaintza kultural zabala izateko aukera ematen du. Saihebideari dagokionez, ikaragarritzko lana izango du. Laster hasiko dira lanak eta 4 urtez luzatuko dira. Gure herritik egu-nero pasatzen diren auto ilarak arinduko ditu. Aspaldiko premia genuen.

- **Ermuko alkate izateaz gain, PSEko zuzendaritzako kide zara. Patxi Lopez**



lehendakari izanak zertan eragin du?

Aldaketa positiboa izan dela uste dut. Garai gogor-rrak kudeatzea egokitu zaio baina pixkanaka gauzak bideratzen ari direla uste dut, ETArek porrotari dagokionez eta ekonomia eta enplegu-ari dagokienez.

- **Egoera politikoaren inguruan zein da zure iritzia?**

ETA betiko desagertzea espero dut eta horretarako ezker abertzaleak bide politikoaren alde apustu serioa egin du. Espero dut benetako apustua izatea. Erronka handia du esku artean eta euskal gizartearen aurrean erakutsi beharko du gai dela hartu duen bideari eusteko.

- **BBKra bueltatzeko asmorik?**

Ez daukat horretarako arazorik. Kontrakoa esango nuke: lana erosoagoa da BBKn, baina Ermua hobetzeko lan egiteak ilusioz betetzen nau eta disfrutatu eta ekarpenak egiteko aukera ematen dit.

- **Alkatetzatik kanpo, ze hobby dituzu?**

Orain dela 2 urtera arte palaz jokatzeko nuen baina belauneko lesio baten erruz utzi behar izan nuen. Betidanik txirrindularitza, mendia eta igeri egitea ditut gustuko.

- **Nolakoa zara alkatetzatik kanpo?**

Pertsona alai eta martxosoa naiz.

- **2011ri zer eskatzen diozu?**

Esku artean dugun lanari ondo ekitea eta krisiari aurre egitea.

Asier Ibaibarriaga
eta Dorleta Vidal



Jol Gisasola
EAJ (2 zinegotzi):

1. Gure balorazioa ona da. Egia da aldaketa etorriko zelakoan geundela baina PPK eta PSEK egin duten akordioarekin, ermuarrek botoen bidez erabakitakoari muzin egin diotela uste dugu.
2. Gure nahia izango da krisiari aurre egitea, gazteria eta euskara bultzatzea. Akordio honekin zail ikusten badugu ere, ez genuke nahi berdinek beti dena erabakitzea. Gure ahotsa Udalera eraman eta beste batzuen erakarri nahi genuke.



Rosa Caballero
EAJ (Zinegotzi 1):

1. Oso positiboa, gure alderdiak Euskal Herrian izan duen boto galerari erreparatzen badiogu: gure portzentajea Euskal Herriko handiena da eta boto gutxigatik ezin izan diogu 2. zinegotziari heldu.
2. Gainontzeko taldeekin batera, benetako oposizio lana egiten saiatuko gara. Azken urteetan ez digute laga oposizioa egiten, gehiengo osoak zapaldu egin gaitu eta. Bildu eta EAJrekin batera, eztabaida politikoak eta negoziazioak areagotuko dira.

Ferretaria / Burdindegia

- * Burdindegia
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Giltzak / Aginte automatikoak
- * Ontziteria / Kopak / Mahai-tresnak
- * Opari artikulua

ANBOTO

Zubiaurre 25, Ermua ☎ 943 17 69 76 @ fer_anboto@hotmail.com

optika

ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

- Zer dela eta animatu zinen Bilduko zerrendaburu aurkezten?

Zailtasunak zeudela ikusi nuelako. Beste aukera bat legez kanpo utzi eta gero, politikan trebatu barik geunden batzuk pausua eman behar genuela ikusi nuen. Horregatik animatu nintzen, edo animatu ninduten-edo... Nahiz eta jakin nire egoerak okerrera egin dezakeela.

- Hauteskundetan parte hartu ahal izateko bide luzea egin behar izan du Bilduk?

Bai eta sorpresaz sorpresa joan gara, pausoz-pauso. Legalak izango ginen edo ez, ez genuen jakin ia azkeneko momentura arte. Auzitegi Gorena, Auzitegi Konstituzionala eta Hauteskundeen emaitzen zain egon behar izan dugu, baina azkenean ondo irten da dena. Beste batzuek zerrenda egin, programa definitu eta Hauteskundeen zain geratu ziren. Gu azkeneko momentura arte zalantzekin egon gara eta arin batean prestatu behar izan dugu dena.

- Bildu legeztatzeak zer ondorio ekarriko du?

Normalizazio politikorako pausu bat eman dela uste dut, beharrezkoa. Horretaz gain, Sortu legalizatzea eta zerrenda beltzekin amaitzea ere ezinbesteko pausoak izango dira epe laburrean.

- Zein da Bilduk herri mailan egiten duen balorazioa?

Gutziz positiboa. Jendea ilusioarekin dago, aldaketa politikoaren posible delako. Mallabitarrek ikusi dute beste era batera egin daitezkeela gauzak eta garbi dauka guk ere ildo beretik jarraituko dugula.

- Horrelako emaitzak espero zenituzten?

Herrian ilusioa nabaritzen zen, hala ere, beti dituzu zalantzak. Oposizioak apustu gogorra egin arren, herriak Bildu aukeratu du.

- Zer nolako taldea osatu duzue herriaren alde lan egiteko?

Talde zabala eta heterogeneoa egiten saiatu gara, esparru ezberdinetan lan egiteko ahalmena duena.

- Tartean gazteak ere badaude, ezta?

Bai, eta lanean hasteko gogotsu daude gainera.

- Zuen programari dagokionez, zeintzuk dira eskuartean dituzuen erronkak?

Alde batetik, aurreko legegintzaldian hasitako proiektuekin jarraituko dugu. Plan Orokorra aurrera eramateko erabakiak hartu beharko ditugu. Beti ere, herritarren behar izanei erantzunez egingo dugu lan eta zer egin daitekeen aztertu beharko dugu momentu bakoitzean.



- Auzoetan hobekuntzarik aurreikusten da?

Bai, sarrera-irteerak ez dira batere erosoak eta bizilagunak aspaldidanik ari dira kexatzen. Saiatuko gara hobetzen. Herriko ura ere falta zaien auzoetara eraman beharko da.

- Gazteekin lan berezia egiteko asmoa duzue?

Gazteriaren errealitatea ezagutu eta euren arazoei irtenbidea ematen ahaleginduko gara. Gazte Elkarte sortzea pentsatuta daukagu eta baita Jai Batzorde iraunkorra ere.

- Mallabiko herritarra Udaleko kontuetan parte hartzailea da?

Bai, orokorrean parte hartzen saiatzen dela esango nuke, baina kasu batzuetan, lagunartean egiten ditugu komentarioak eta gero, ez gara hainbeste mugitzen!

- Proiektu hauek guztiak aurrera eraman nahian, oposizio gogorra espero duzue?

Bi taldeok herriaren alde aritzea espero dut eta gauza askotan ados egongo garela-koan nago. Printzipioz ez ditut aurkari moduan ikusten. Elkarlanean arituko gara uste dut eta ez politikan itsu-itsuan.

- Mankomunitatearekin lan egitea ere tokatuko zaizue?

“Ez dut oposizioa aurkari moduan ikusten. Gauza askotan ados egongo garelakoan nago”

IZOTZ
IZOZTUAK

ERMUA
Merkatua
54-55 postuak
943174101

ARRASATE
Merkatua
943770598

ELUR
ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa

Aldapa 1 **943 17 60 52**

ILEAPAINDEGIA

Izaskun

Goienkale, 9 (Plaza San Martin)
48260 Ermua Bizkaia
Tel. 943.17 66 90

ILEAPAINDEGIA

“Krisi garaian egonda, badakit proiektu batzuei ezetz esatea tokatuko zaidala”

Bai, hor ere beste ardura batzuk daude. Mallabiaren kokapena nahiko berezia da, Bizkaia eta Gipuzkoa artean dagoelako. Hori dela eta Durangaldearekin eta Debebarrenarekin harremanetan jarraituko dugu baina akaso, premia dagoenean, ez gaituzte inon ere kontutan hartuko.

- **Ermuko Udalarekin zer nolako harremana izango duzue?**

Inguruko guztiekin berba

egiteko prest gaude. Ermukoekin ere bai, noski.

- **Zeintzuk dira eman beharreko pausuak hemendik aurrera?**

Izendapena egin eta gero, apurka-apurka Udaleko lanean murgildu: teknikari desberdinekin berba egin eta, barrutik ezagutu ondoren, martxan hasi.

- **Inoiz pentsatu izan duzu politikan arituko zinela?**

Ez. Beno, beste aukeraren



bat izan dut, baina orduan beste batzuek heldu zioten proiektuari. Politikak ez nau inoiz gehiegi erakarri. Lehenengo sorpresa, beraz, neuretzat izan da.

- **Zure bizimodua asko aldatuko dela sumatzen duzu?**

Dezente, seguru asko. Orain arte, nire lanorduk bete eta denbora librean nuen: lagunak, familia, nire oportxoak... Hemendik aurrera, 24 orduetan izango dut ardura eta deskonektatzea zailagoa izango dela pentsatzen dut.

- **Zerk ematen dizu bertigo gehien?**

Krisi garaian egonda badakit ezetz esatea tokatuko zaidala, nahiz eta proiektu onak edo aurrera ateratzeko moduko proiektuak aurkeztu. Bestalde, Aitor Loiola laguntzeko prest dago eta eskertzen diot.

- **Kritikak entzuteko prest zaude?**

Ez dakit mentalizatuta nagoen edo ez, baina etorriko direla seguru!

- **Zertan ematen duzu denbora, lanetik irteterakoan?**

Ibiltzea gustatzen zait eta ahal dudanean inguruko mendietara igotzea, Aitzkorri edo Anbotora, esaterako. Lagunekin eta etxekoekin egotea ere gustuko dut, baita zinera joan, irakurri...



**Jesus Gisasola
Mallabiko EAJ:**

“Erronka bat izan da niretzat alkategai izatea baina herriak eman du bere iritzia eta halaxe onartu behar da. Demokrazia horixe da.

Elkarlanerako prest gaude, beti ere, adostasuna lortzen baldin badugu. Gure jarrera herriarentzat lana egitea izango da”.

- **2011ri zer eskatzen diozu?**

Lanbide berrira lasai sartzen uzteko eskatzen diot, dena batera etorri barik. Eta beste gauza handirik ez, horrekin konformatzen naiz.

- **Lau urte hauek pasatutakoan, jarraitzeko asmoa duzu?**

Ez, beste batzuk etorriko dira. Aldaketa ona izaten da.

Asier Ibaibarriaga
eta Dorleta Vidal

MUGA **KALORIK**

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

ARRIETA CORDEVI

Elektratresnak,
telebistak, bideoak,
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

MALLABIKO Herriko taberna

Eguneko platerra (3€), menua,
plater konbinatuak, bokatak,
pintxoak, kazolak...

* Bazkari eta afariak
parrillan (enkarguz):
txuletak, arraina...

Enkarguak:
943 174 952
(astartetan Itxita)

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

Garazi Mugarza:

“...ahoz esaten ausartzen ez nazenak letrekin esaten dittut”

Garazi, 16 urteko mallabitar gaztie, Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen daberen Urruzuno Literatur lehiaketako irabazleetako bat izen da. Zorionak Garazi!

- Zelan izen zendun lehiaketa horren barri?

Eskolan euskerako irakasleiek emon euskun lehiaketian barri, berak pasau euskun informaziño dana, nahi izen ezker parte hartzeko.

- Zer aurkeztu zendun?

Lehiaketan bi modalitate dagoz: Poesia eta eleberria. Nik bigarren horretan parte hartu naban. ‘Txaro’ ixenekue zan: emakume batek bere senarrari espetxera egindeko bisita bati buruzkue. Zortzi bat orrialdeko istorixue zan. Irakasleiek animau nidduen zeozer bidaltzeko, eta azkenien etxien idatzitte neukena bialtzie akordau jatan. Ta beitu, oso suerte ona eduki dot.

- ...bai gero! Sarixe lortu dozu!

Bai. Alde batetik, hamaika eguneko bi ajie Bretagne-ra, irailaren 2-tik 12-re beste irabazleiek batera, bestetik, gastuetarako 300 euro eta horretaz gain oroigarrixue be bai.

- Noz jasoko dittuzu sari-xok?

Irailaren 2xen ospatuko da, baina ondiño eztaikit zehatz

nun eta ze ordutan.

- Lan saridunekin, zer egitteko asmue daukie? Aukerarik badago irakurtzeko?

Lan sarittu guztixek batu eta Sagastiberri saileko liburu argitaratzen dittue; gero liburuok eskoletan banatzen dittue.

- Kuriosidadez... noztik idazteko zaletasun hori?

Umetatik gustau izen jata klasien ipuinek idaztie, gainera aitaren zaletasunetako bat be bada idaztie eta horrek be eragin dau. Baina nire lehengo idazkixue, esan leike, lñaki Mallagarairi egindeko agur gutune izen zala.

- Zertarako idatzen duzu?

Gustuko gauzie dot idaztie, disfrtau egitten dot, ahoz esaten ausartzen ez nazenak letrekin esaten dittut, urduritasune kentzeko, zorretan nauela sentitzen dotelako... Egixe esan eztaikit. Galdetu txakur bati ia zertarako egitten daberen zaunke.

- ...eta idatzen dozun hori, zuretzako edo besteentzako egitten dozu?

Neuretzako idatzen dot, nire gogoetak eta nire sentimenduek. Pare bat agur gutun idatzi dittut eta horrek, zelan ez, ezta niretzak izen. Baiña gero nire idazki gehixenak blogien argitaratzen dittut, orduen esan leike irakurri nahi dittuenantzako be idatzen dotela.



- Bloga?

Bai, informatikako lana zan bloga egin eta garatzie. Orduen etorri jatan nire idatzixek bertan argitaratzeko ideie. Nahiz eta azken hilabetien nahiko geldi egon... bertan argitaratzen dot idatzitteko gehixena. Blogan helbidie <http://periotx1.blogspot.com> da.

- Bisita asko izaten dittu zure blogak?

Uste dot dan moduko bloga

izeteko askotxo dala, baina ni pozik nau, nonok kontuen hartzen dabelako egindeko lana.

- Hemendik aurrera, zozer barrixe egitteko asmue edo bestelako helbururik badaukezu?

Buruen ideia asko dittut, baiña garatu ezindde nabil. Momentuz betiko martxan jarraituko dot, neure idazki eta pasadizuek idatzen.

Ibaia Azagirre eta Igone Amesti



Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50

Drogeteniturrri, 191 zkia.



**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarinetea
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

UDALBATZA BARRIXE OSATU DA MALLABIXEN

Joan dan ekainan 11an izen zan Mallabixen, beste herri askotan moduen, udalbatza barrixan osaketarako inbestidura saieue. Maiatzan 22xen burutu zien Udaletako hauteskuntzietan ondorengo emaitzak lortu zittuen partidu politiko bakotzak: BILDUK 363 boto, EAJK 301 boto, PSOEk 31 boto, PPK 12 boto eta 19 izen zien zuri eta nuluek.

Horren arabera, era honetan osatuko da Mallabiko udalbatza: 5 zinegotzi BILDUK eta 4 zinegotzi EAJK.

Inbestidura saieue baino ordu erdi aurretik hasi zien ospakizunek herrixen. Soinu eta panderuaz lagundutako kalejirie heldu zan 12xetarako udaletxera. Ordureko zinegotzi eta herritar ugeri zain euezan ekitaldixe ikusteko. 50 bat lagun inguru batu zan batzar gelan. Bertan, mahaixe osatuko daben zinegotzi barrixek aurkeztu zittuen mahai buruek lehenengo. Ondoren, alkatie aukeratzeko botaziñue izen zan. 5 botu lortu zittuen Mila Mondragonek (BILDU) eta 4 boto Jesus Gisasolak (EAJ).

Azkenengo lau urtietan alkate izen dogun Aitor Loiolak aginte makillie emon eutsen orduen Milari txalo artien. Gero Milak eta Jesusek euren egitasmuek azaldu zittuen. Beraz, honan osatu da udalbatza Mallabian:

1. Mila Mondragon
2. Unai Uzuriaga
3. Koldo Pradera
4. Jose Luis Arriaga
5. Xabat Areitioaurtena
6. Jesus Gisasola
7. Itziar Garitagoitia
8. Igor Agirre
9. Miren Josune Txakartegi

KULTUR ETXEKO LANAK MARTXAN

Martxan dagoz honezkero Kultur Etxeko teiltue konponetzeko lanak. Abuztureko amaittute egongo ei da Ur enpresak aurrera daroien eta 113.121 euro kostako dan lan hau. Oin hamabost urte Kultur Etxe goitik behera barriztu zanien teiltue izen zan aldatu ez zan bakarria eta premia haundixe euki dabela diñue Udaletik. Liburutegi zerbitzuek betiko lez martxan jarraituko dau, baina KZ Gunie ezingo da lanak amaittu arte erabili.

ANE LOIOLA YOUTUBE

Drogeteniturririko aurreko alien emon gendun Ane Loiola mallabitarrak Ekuadorren pasau dittuen hiru hilebetien barri. Beste ekintzen artien, euskara eta bertako komunitate indigenen aldeko korrika bat be ospatu eben. Oin gure dabenak, ikusgai dauke interneteko Youtube atarixen horri buruzko bideo bat. Bertan 'Korrika Chaski Ekuador' idatzitte aurkitu ahalko dozue.

UMIENTZAKO UDALEKUEK UZTAILIEN

Azkenengo urtietan lez, aurten be Mallabiko neska-mutilek udako udalekuetara juteko aukerie izengo dabe. 4tik 14re urte bittarteko ume eta gaztetxuei dago udaleku ireki hau zuzendute eta Mallabixen erungo die aurrera. Hilan 22ra arte egon da izena emoteko epie zabalik eta Udaletik jakin arazi dozkuenez 35 bat haur eta gaztek emon dabe izena. Ekainan 29xen hasi eta uztailan 21ien amaittuko die koloniak eta normalien goixeko 9.30etatik 13.30era izengo die. Aipatzeko ekintzen artien eskulanak, Arantzazu eta Urbixara irteerak, Olinpiadak, antzerkixe, igerilekure irteerie, jaixek eta nahi beste jolas dagoz.

MALLABIKO NESKAK GARAILE

Euskadiko Jokoetan, Nesken Paleta Gomazko modalidadien, Julene Larrakoetxea eta Amaia Araiztegi geratu zien txapeldun. Gipuzkoan kontra jokatu eben ekainan 5ien eta erreiz gailendu zien gipuzkoarren kontra. Horretaz gain, egun berien Amaia Araiztegi Arteagako Olatz Arrizabalagakin batera, Nesken Esku Pilota Txapelketa jokatu eban Gipuzkoan kontra eta irabazle urten zan.



EKAINAN 17XE, ESKOLAKO ATE IREKI JARDUNALDIXE

Lehenengo aurtien ospatu dabe Mallabiko Learreta-Markina eskolan datorren ikasturtera begire eskolako partaide izengo dienezako ate ireki jardunaldixe. Eskolako instalaziñuek ikusteko aukerie izen eben eta bide batez harremanak egitteko be bai. Datorren ikasturterako 12 matrikula barri egin die. Lehen Hezkuntzako ikasketak amaittu eta Berrizko Institutura juengo dienak ikesten 7 ikasle die. Aurtien 88 haur izen dittue eskolan, 44 Haur Hezkuntzan eta 44 Lehen Hezkuntzan. Azken urtietan ikasle kopurue handitzen doie, eta hau dala eta egokitzapenak egitteko lanak egingo dittue uda sasoi.

0 eta 8 urte bitarteko umeentzako moda eta puerikultura

mimitos

Zapatak, pijamak,
lentzeria, aulkiak,
sehaskak, tronak...
behar duten guztia!

*Eta gainera 'Hello Kitty'-ren
artikulu mordoa!*

Probaleku 4, Ermua • ☎ 943 033 830

OUTUMURO

Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

17 urteko semea urtebetez etxean

2010eko irailean Anak, Miguelek eta Julenek etxeko ateak zabaldu zizkieten Emile Heidenreich ikasle alemaniarrari. Gaztelera ikasteko asmoz etorri zen Ermura eta hori baino gehiago egin du 17 urteko gazte honek azken 10 hilabeteotan: lagun berriak, aurreiritziak baztertu eta euskara eta Euskal Herriko ohiturei buruz hamaika kontu ikasi. Ermuko 'familia' ere etengabe aritu da gauzak ikasten eta, euren hitzetan, esperientzia ahaztezina izan da.

Aurreko uda etxetik kanpo igaro behar zuten Julenek, ingelesa ikasten. Baina, semearen beharrei egokitzen zen bidaia bilatzen hasi zirenean Ana Garcia eta Miguel Alcoba, 'AFS Intercultura' Gobernu Kanpoko Erakundearen berri jaso zuten. GKE honek 90 urte ditu, AEBetan jaio zen eta

Lehen eta Bigarren Mundu Gerretan laguntza humanitarioa ematea izan zen euren lana. Gaur egun, berriz, herrialde ezberdinen arteko ikasle-trukea ahalbidetzea du helburu.

Baina AFSek bere arauak ditu. Horien artean ikasleek urtebete igaro behar dutela etxetik kanpo, hizkuntza baino, beste kultura batzuk

ezagutzea delako ikasle-truke honen oinarria. "Ez genuen nahi Julen hainbeste denbora beste herrialde batean egotea eta, azkenean, ikasle bat gure etxean hartzea erabaki genuen", diote.

Konfirmazioa jaso aurretik, adopzio batean jarraitu beharreko pausuak eman behar izan zituzten: eskaerak bete, elkarrizketak, etxean bisita... eta bukatutakoan hautagai batzuk aurkeztu zizkieten. Filipinetako neska bat eta Emilen artean zalantzan egon ziren, baina Hip Hopak, gaztelera apur bat jakiteak eta gertuagoko kultura izateak, Emileren alde egitea eragin zuen.

Hasieran 3 hileko konpromisoa hartu zuten ermuarrek eta horren ostean Emilek beste familia bat bilatu behar izan zuen. Baina, konturatu barik, denborak ihes egin ziren eta hasitakoarekin aurrrera jarraitzea erabaki zuten. "Erabaki arrisksua izan zen 17 urteko gazte bat etxean hartzea -dio Anak-, eta nik nituen zalantza gehien. Azkenean zure intimitatea galtzen duzulako. Baina hasi eta gero, argi nuen dena emango nuela eta duda barik merezi izan du, oso aberasgarria izan da".

Familia berria

Elkarri ulertzea ez zen zaila: Emilek gaztelera apur bat zekien etorri aurretik eta etengabe aritzen zen hitz berriak bilatzen i-Podean zuen hiztegitxoan. "Guk ere denbora asko eman genuen berekin hitz egiten, gauzak azaltzen. Berba egiten ikasten dabilen ume txikia etxean izatea bezalakoa zen, baina nerabe bat zela ahaztu barik", diote barrezka.

Alemanak, berriz, beste bertsio bat du: "Hasieran ez nuen ezer ulertzen, jendeak oso arin egiten zidalako berba. Neure familiari bakarrik ulertzen nion", eta 'neure familia' esatean, argi lagatzen du lauren artean sortu den lotura: ama, aita eta anaiari buruz berba egiten duelako Emilek etengabe.



Proba-Leku
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGYAK 943 030 299**

komunitateak
asegururak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

Hain zuzen ere, Julenen eta Emilen artean zer nolako harremana sortuko zen ikusteak kezka handia sortzen zien gurasoei. Baina ia lehenengo egunetik ondo moldatu dira eta euren artean bi anaien arteko harreman ona sortu da hasieratik, ohiko eztabaidak alde batera utzita (hala nola telebistako botoiari zeinek sakatu).

Aurreiritziak

Kultura-txokea egotea ezinbestekoa zen. Miguelek Mallorcara doazen alemanen irudia du buruan eta Emile ez dago batere ados. "Kontuz, eh!", dio barrezka. Alemanak hotzak direla, serioak... aurreiritzi horiek bazterrarazi dizkie Emilek: "Zoriontsuak ere bagara!".

Kontran, hemen alferkeria dagoela uste dute Alemanian, eta zoriontsuegi bizi

garela, baina ez da horrela: "Alemanian jendeak lan larregi egiten du eta ez dauka familiarekin eta lagunekin disfrutatzeke denborarik. Hemen gauza biak egiten dira eta nik hauxe nahiago dut", esan digu alemanak.

Bestalde, hona etorri zenean zezen-korrida ikusi nahi zuen Emilek, "flamenko, paella eta zezenak dira Alemanian ezagunak, baina Euskal Herria beste gauza bat dela ikasi du. Beste kultura bat, ohiturak eta hizkuntza dugula eta horren inguruan asko ikasi du. Euskara ikastaroa ere egin behar zuen -dio Anak-, baina azkenean ez zuen jende nahikoak izena eman".

Komunikazioa

Etxekoekin komunikatu eta gauzak konpartitzea beste eztabaidagai bat izan



"Berba egiten ikasten ari den umea ematen zuen hasieran, nerabe bat zela ahaztu barik"

da. Logelako atea zabalik laga behar izatea eta familiako edonor logelan sartu ahal izatea, esaterako, ez da ohikoa Alemanian. Eta afalostean, esaterako, egongelara familiako beste kideekin joan beharrean, bere logelara joaten zen hasieran Emile eta ez zuen telebista ikusten, Alemanian ez baituelako telebistarik.

Era berean, hemen larregi hitz egiten dela dio eta larregi galdetzen dela: Zer moduz? Zelan eguna? "Nire gurasoek ez didate ezer galdetzen. Zerbait kontatu nahi badut, nik kontatuko dut!", dio Emilek. Berba egiteko larregi hurbiltzen garela dio, eta horrek erasota sentiarazten du, eta hainbeste muxu emateak ere harrituta utzi du.

Baina bidea bukatzerakoan Emile guztiz integratu dela esan daiteke: Bere koadrila du (Julenen koadrilaz aparte), inguruko herriko jaietara joan da, bere ikasketak nota onekin gaintitu ditu, tabernetako zaratak ez du hainbeste gogaitzen eta hasieran hainbeste nazka ematen zion odoldun okelaren orde, txuletoi gozoa janaz gozatzen du orain.

Hemengoek ere asko ikasi dute, hala nola Alemaniako errezetak egiten, ogi beltza, tea nola egiten den eta nola edan behar den, hitz batzuk eta behin eta berriz saiatzen

den gaztetxoarekin ordutegiak negoziatzen.

Esperientzia

Emilek bere bidaia ordaindu behar izan du, baina Ermuko familiak ez du trukean ordainsaririk jaso. "Horregatik aukeratu nuen GKE honekin bidaiatzea -dio berlingarrak-. Euren etxean hartu behar ninduen familiaren xedea izan behar zuen esperientzia berri bat bizi nahi izatea, eta ez soldata bat jaso nahi izatea. Eta niretzat esperientzia ikaragarria izan da, hizkuntza aldetik baino, kulturagatik".

Julenek ere sentsazio bera du: "Ez daukat anai-arrebarik eta esperientzia honek nire adineko beste pertsona batekin elkarrekin bizitzeko aukera eman dit. Emile moduan, nik ere beste kultura bat barrutik ezagutzea nahiko nuke". Eta Emilen esperientzia ikusi eta gero gurasoen oniritzia jasoko luke Julenek: "Asko ikasiko du, oso esperientzia aberasgarria izango da, bizitzan behin bizi beharrekoa", diote.

Ekainaren 30ean Emile Berlinera itzuliko da eta Ermuko familiak sukaldean izan duen hitzez beteriko arbeltxoa kenduko du. "Egunen batean agian, bixitan joango gara Berlinera", diote.

Dorleta Vidal

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Ardo banatzailea:

Riedel
Aygsvts
Clós Mogador
Yllera
Cantosán
Luis Cañas

Hugel&Fills
Anima Negra
Itrache
Cillar de Silos
Vriego
Laurona

DISTRIBUCIONES ARRAL
TELEFONOA: 943 17 60 75

Angel Hidalgo, Lowlet.es webgunearen sortzailea:

“Internetera salto egitea kostatzen da oraindik”

Azken denboraldikoak ez diren era guztietako produktuei ‘outlet’ deitzen zaie. Azken urteotan ‘outlet’ak saltzea modan dago eta Ermuko merkatarien outlet salmentak bultzatzeko www.lowlet.es web orria sortu zuen Angel Hidalgo ermuarrak duela urte erdi inguru.

“Era honetako arropak eta zapatak ez dira erakusleihoan ipintzen, denda barruan baizik -dio Angelek-. Hori dela eta, dendara sartzen diren bezeroek bazarrik ikusi eta eros ditzakete produktu horiek”. Lowlet.es web orrialderi esker Ermua eta inguruko herrietako bizilagunek produktu hauek ikusi eta erreserbatzeko aukera dute, nahiz eta gero dendara joan beharko duten probatu eta erostera.

Gaur egun dozena erdi dendetako produktuak daude ikusgai Lowlet.es-en. “Izena ematea dohainik da, baina merkatariei ideia gustatzen zaien arren Internetera jauzia ematea kostatzen zaie”, dio Angelek. Hala ere, adinaren arabera, ezberdintasunak daudela argitzen du: 40 urtetik beherakoen artean harrera hobea da proiektu honek, baina hortik aurrera..., ez dute euren txokoari dinamismorik ematen. Hilero 1.500 bisitari inguru izaten ditu euren webguneak, baina oraindik ere sareak mesfidantza sortzen duela argi dagoela diote.

Ekimen berritzailea

Ekimen hau berritzailea dela esan daiteke, inguruetako herrietan horrelakorik ez dagoela kontutan har-



tzen bada, dio Angelek. Eta “gaur egun Internet ez da aukera bakarra, baina dendetarako ezinbesteko erreminta bilakatu da”, argitzen du.

Angelek bere lana du eta denbora librean arduratzen da Lowlet.es webguneaz.

Ondoan, Carolina Ochoa nekalanagunak komertzial lanean dihardu. “Hainbat kanpaina ipini ditugu martxan gu ezagutzeko eta momentuz ezinezkoa den arren, lan hau gustatzen zaigu eta honetaz bizitza gustatuko litzaziguke”, diote.

“1.500 bisitari baino gehiago ditugu hilero”

uriarte asesores ✓
Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

DO
Mouth

Quetzal
Arropa, bitxiak,
opariak... zer ez!
Goienkale 9 · ERMUA
943170065

Cable Spot

25 urteko esperientzia dugu
antena kolektiboak eta atezain
automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTrA egokitu.
ETEN ANALOGIKOA
GERTU DAGO!

EUSKALTELEN BANATZAILEA

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa,
banda zabala, kable telebista... euskaltel

ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314

Erreserbatu zure kamiseta!!

laz bezala, 'atarazarata' kamisetak ipiniko dituz salgai Euskal Birusa elkarteak Santixau jaietan. Neska eta mutilentzako kamisetak egongo dira (mahuka motzarekin eta tirantedunak) eta ume zein helduentzat. Txikurixan erosi ahal izango dira, baina aurretik erreserbatu nahi badituzu, deitu 943179350 telefono zenbakira edo idatzi mezu elektronikoa euskalbirusa@euskalnet.net helbidera



Udako postal lehiaketa martxan da



Ermuko Udaleko Euskara Sailak aurtengo postal lehiaketari hasiera eman dio. Parte hartzeko, posta zerbitzu arruntez postala bidali beharko da eta bertan, bisitatu den lekuaren deskribapena egin beharko da. Helduen kategorian, bi lagunentzako asteburu pasa landetxe batean, egun pasa Spa batean eta afaria banatuko dira garaileen artean. Umeen kategorian, berriz, 50, 40 eta 30 euroko erosketa txekak banatuko dira. Postalak Euskal Birusaren 247 posta-kutxara bidali beharko dira. Postalak jasotzeko epea irailaren 30ean bukatuko da eta sari banaketa urriaren 1ean burutuko da, Lobianon.

Irakurri, Gozatu eta Oparitu ekimenaren lehen zozketa



Ariane Cid izan da Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoaren aurtengo lehen zozketaren irabazlea. 10 urteko ermuar honek 30 euroko erosketa txekoa eta liburu-sorta jaso zuen Udal Liburutegiaren eskutik. Zozketan parte hartzeko euskarazko liburuak hartu behar da maileguan Udal Liburutegian uztailearen 23a baino lehen, irakurri, eta bueltatzerakoan fitxa bat bete. Zozketan parte hartzeaz gain, %25eko deskontua lortuko da Maribel eta Xiripot liburu-dendetan liburuak erosteko (Euskal Biruseko bazkideek, %50eko deskontua lortuko dute). Ekainean eta uztailean liburuak hartzen dituzten guztien artean beste bi zozketa egingo dira, animatu eta zorte on!

San Martin azokako laguntzaileak, Zestoan



Maiatzaren 21ean txangoa egin zuten San Martin azokako laguntzaileek, Euskal Birusak antolatuta. Guztira 22 lagun bildu ziren eta elkarrekin Zestoan dagoen Ekain haitzuloren erreplika ikustera joan ziren; Aizarnan bapoz bazkaldu ondoren, kantu batzuk egin eta Zestoako bainuetxeraino egin zuten osteratxoa. Argazki guztiak ikusteko, egin klik Euskal Birusako web orrialdean (www.euskalbirusa.org).

JAI TABERNAREN CICLA2 PINTXOA GARAILE

Jardunaldi Gastronomikoen barruan burutzen den pintxo lehiaketan 27 tabernek hartu dute parte aurtengoan. Epaimahaiaren arabera Jai Tabernako Cicla2 pintxo izan da onena. Honek itsaski-krema kopatxoa, zamburiñak eta nori algak ditu. Bigarren saria Paddock tabernak sorturiko pintxoarentzat izan da.

LUIS ARAGONESES SANTIXAUETAKO KARTELAREN IRABAZLEA DA

Luis Aragoneses eibartarrak irabazi du 2011ko Santixau jaietako kartel lehiaketaren saria, 'Buzti zaitez' lelopean aurkeztutako lanari esker. 23 kartel aurkeztu dira lehiaketa honetan guztira, baina Aragonesesek irabazi du 600 euroko saria.

DEBABARRENAKO III. BTT MARTXA EKAINAREN 26AN

Debabarrenako BTT Martxa ez lehiakorra hilaren 26an burutuko da 3. urtez Mintxetan. Aurrez izena emateko epea ekainaren 21ean itxi bazen ere, egunean bertan izena emateko aukera egongo da. 9.00etan emango zaio hasiera proba-ri eta Elgoibarko Mintxeta Kirol Gunean izango du irteera eta amaiera puntua. Urtero moduan, bi ibilbide egongo dira aukeran eta amaitutakoan bazkaria egingo da.

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305

Infreñu Taberna

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

OSASUNA • ESTETIKA EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 - Goienkale 12

ALBERTO LASUEN

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?

Oroitzapen onak ditut, Sallabenteko eskolatik irten eta Eitzagara joaten nintzen meriendatzera. Beti izan da etxea niretzat Eitzaga.

- Gaztetan hasi zinen lanean?

Eibarko Damaskinatu eta Buril eskolan ikasi nuen eta 17 urte nituela hasi nintzen Eibarren lanean eskopetak burilian grabatzen. 27 urterekin kamioi eta eskabadorekin hasi nintzen lanean. Gero, Ermuko Udal brigadan 23 urte ibili nintzen jubilatuta arte.

- Gaztetan pilotan ala bizikletan?

Pilotan afizioa bai, baina beti bizikletan. Nik bizikletan ikasi nuen aitari bizikleta kenduta 9 urte nituela. Aitak siesta egiten zuen bertan eta berak jakin gabe ikasi nuen. Aitak ez zidan bizikleta lagatzen, berak lanearako behar zuelako, Eibarre bizikletaz joaten zen eta.

- Noiz erosi zenuen zure lehenengo bizikleta?

Eibarre eskolara joateko 14 urterekin erosi nuen. Media-karrerako bizikleta zen. Gogoratzen dut bizikleta harekin lehenengo karrera korritu nuela, San Pelaioko jaietan egiten zen ziklo-kro-sean. Karmani eta biok ari ginen lehian metarako 20 metro falta zirela eta jausi egin nintzen. Karmanik irabazi zuen eta bigarren geratu nintzen. 19 urtera arte Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat herritan korritu



Espilla Azpin jaio zen orain dela 70 urte. Lau anai arreben artean bera da nagusiena. Hiru seme alaben aita. Bakarrik ikasi zuen bizikletaz ibiltzen 9 urte zituela aitari bizikleta kenduta. Orditik gaur egun arte txirrindularitzari lotuta bizi da.

nuen afizionatu moduan eta gero utzi egin nion.

- Baina beti egon zara txirrindularitzari lotuta...

Soldaduskatik etorri, motorra erosi eta 'enlace' moduan ibili nintzen, gero Euskal Herriko Itzulian epaile-arbitro moduan ere ibili naiz eta gaur egun ere Debabarrean ari naiz.

- Ermuko txirrindulari ospetsuenak gertutik ezagutu dituzu. Ausartuko zinateke bakoitza laburrean deskribatzen?

Saiatuko naiz.

- Horrillo?

Txapeldun konformatu bat.

- Astarloa?

Irabazlea.

- Galdos?

Urrezko bihotza daukan txirrindulari on bat.

- Hernandez?

Jubeniletako Espainiako onena. Gaur egun ere potentzial handia duena.

- Gazteak zelan datoz?

Aitor Gonzalez, Espainiako afizionatuen onenen artean dago eta Pello Goikoetxeak ere proiektio ona du.

- Emakumeen txirrindularitza...

Oso gogorra da eta kaleko

jendeak ez dio balorerik ematen. Erakundeak hasi dira emakumeen txirrindularitza laguntzen.

- Sasoi guztietako txirrindulari bat aukeratzeko...

Bi aipatuko nituzke. Indurain eta Contador, pertsona eta kirolari moduan onenak direla esango nuke.

- Batzuek diote, jubilatzean ez dutela ezertarako denborarik. Zuk?

Ni ederto bizi naiz, gustura. Erreuma apur bat badaukat eta janariarekin zaindu behar, baina pozik bizi naiz.

- Bizio bat?

Bazkaldu aurretik txakolin batzuk hartzea. Orain noizean behin hartzen ditut.

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Puntueltasun ezak. Ni normalean bost minutu aurretik heltzen naiz.

- Aisialdian...

Eguerdirako lan guztiak egitea gustatzen zait. Bazkal ostean paseotxo bat egin, perretxikoak hartu... Arratsaldea nahi dudana egiteko gustatzen zait.

- Bilobekin zelan moldatzen zara...

Bilobei adarra jotzea gustatzen zait, amorratu arte.

- Musika mota bat...

Soinua da niretzako abertzarrena.

- Zer da egunero kale egin gabe egiten duzun hori?

Egunkaria irakurri eta interneten txirrindularitza kontuak begiratu.

Alazne Aiestaran



blush
Santiago Plaza 3, behea · ERMUA
943 10 82 42



PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean



PRODUCTOS
SELECTOS
URDAITEGIA - CHARCUTERIA
MAYTE
Plaza del Mercado
Tel. 17 24 12
ERMUA

Arroilen jaitsiera Pirinioetan

Ekainaren 10a eta 12a bitartean Artarrai Mendi Taldeko kide batzuk Pirinioetara joan ziren ferrata eta arroila-jaitsierak egitera. Hau da bidaiaren kronika eurak azalduta.

Ostiralean bi furgonetatan sartu eta lau orduko bidaiaren egina genuen Artarraiko 17 lagun Brotoko aterpera joateko, Aragoiko Pirinioetan. Larunbatean Sorrosal ferrata igo eta bi rapeletan ia 100 metroko ur-jauzia jaisteko asmoa genuen baina ur gehiegi zegoenez, hustuko zen itxaropenarekin, iganderako uztea erabaki genuen.

Horren ordez 'Cueva del moro' kobazuloa zeharkatu genuen. Ordu t'erdi eman genuen narrasean eta lokatz artean arroilara iristeko. Eskerrak neoprenoak generamatzan! Egia esan, eguzki izpiak sartzen ez diren toki ezkutu horietan sentsazio nahasiak izaten dira nagusi: bakardadea, ikara, harridura...

Kobazuloaren irteeran Viandico arroila dago eta handik aurrera rapelatzen, saltoka eta ur gardenetan igeri eginez jaitsi ginen. Arratsaldean, berriz, beste arroila bat jaitsi genuen, La Gloces, oso polita estetikoki.

Zoritxarrez Sorrosal ur-jauzian istripu larri bat gertatu zen igandean. 45 metro rapelatu ondoren ur putzu erraldoian, badirudi gehiegizko ura eta nekearen ondorioz, gidari profesionalekin zihuan taldeko kide bat ito egin zen. Helikopteroak hilik atera zuen eta lur jota gelditu ginen. Istripua izan ondoren, ur-jauzian ur gehiegi zegoela kontuan hartuta eta gure taldean eskarmentu gutxiko jendea zegoenez, Sorrosal ez jaistea erabaki genuen.

Etxera bidean Fago arroilara abiatu ginen, baina sekula ikusi ez dugun jendetza zegoen bertan eta azkenean Yesako urtegiaren hartu genuen atsedena eta 12 metroko zubi batetik salto eta igeri eginez eman genion bukaera asteburuari. Nekatuta baina zoriontsu eta irribera itzuli ginen Ermura hurrengo irteera noiz antolatuko desiratzen.

Zer dira?

Arroilak edo 'kanoiak' orain dela milaka urte, glaziazio osteko garaietan urak kareharrin eragindako higadura edo erosioaren ondorioz sortu ziren. Urte askotan zehar arrain, anfibio, narrasti eta hegazti harraparien bizileku izan ziren arroilak. Baina lau-rogeiko hamarkadan sakonera horiek kirol ikuspegitik aztertzen hasi ziren hainbat mendizale eta espeleologo frantziar: horrela sortu zen arroilen kirol jaitsiera.

Ferratak ostera, eskalatu gabe, burdinazko kate, 'pasamanos', zubi, tirolina eta eskailera bidez mendira igozteko posible egiten duen kirol mota bat da, hori bai, beti ere segurtasun neurriak hartuta. Berez jatorria munduko lehenengo gudan dute, Italia aldean etsaiak zelatazko asmoz harrizko mendi tontorretara bidea errazteko jarri zirelako.

Arriskutsuak

Artarrain urte asko darabagu era honetako ekintzak antolatzen (batzuk orain dela 20 urte inguru hasi ginen praktikatzen) eta gero eta zale gehiago daude: azken batean arroilak aqua-parkak bezalakoak dira baina natural-naturalak!

Kirol hauek praktikatzen ez da prestaketa fisiko berezirik behar. Hala ere, material egokia erabiltzea oso garrantzitsua da, bestela norberaren bizitza arriskuan jartzen da.

Jakin badakigu arroilak, ferratak eta era horretako ekintzek arriskua dutela, zerk ez? Noizbehinka istripuak gertatzen dira eta komunikabide guztietan agertzen direnez, badirudi oso arriskutsuak direla. Baina normalean segurtasun neurriak eta material egokia erabiliz gero, ez da ezer gertatu behar.

Arroiletarako beharrezkoak den materialaren artean honako tresna hauek ditugu: hotzetik eta zaurietatik babesteko gaituen neoprenoak jantzia, oinetako egokiak, arnesa, kaskoa, sokak eta rapelatzen erabiltzeko erantsailak. Horiez gain ferratetan kolpeleungailua (edo disipadorea) erabiltzen dugu. Artarrain bertan daukagu material hori guztia.

Koldo Aranberria




**CITROËN
AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta 3 L8 pab.
Tel. eta Faxa. 943 17 04 14

solozabal
tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



**DULCE
BEBÉ
PEQUE'S**

0 eta 4 urte
bitarteko
umeentzako
moda eta
puerikultura

Zubiaurre 30 · ERMUA
943 170 005

Jada, hasi da udako denboraldia

Txankletak eta sandaliak jantziak ikusten dira kaletik, gorriz margotutako behatzak eta depilaturiko hankak. Dendetan bainujantziak ditugu, klase guztietakoak, normalak, loreduak, marra-dunak, luzeak, motzak, bikini, trikini, burkini... Farmazietan eguzki kremak loratu dira, pediatrikoak, azenarioarekin, uretan joaten ez direnak, umeentzat, helduentzat, aurpegirako, gorputzerako... eta ezin ditugu dietak ahaztu: Dukan medikuaren dieta, alkatxofaren dieta, siropearen dieta, lipograsil... neguko gehiegikeriak kendu behar ditugula!!

Telebistan albiste garrantzitsu moduan hondartza eguzkitsuak agertzen dira, denak pozik agertzen dira: umeak gazteluak egiten,

amama etzaulkian lo, bikoteak musukatzen eta sekulako erreportaje bikaina bukatzeko biluzik dagoen titi marduldun neska gaztea.

Harritzekoa da zelan aldatzen den telebista negutik udara, eta badirudi gure artean bizi diren pertsonak ere aldatu egiten direla. Eguzkiarekin batera, albiste politak datoz.

Non daude neguan telebistan ateratzen diren etxe gabeko pertsonak? Benidormera joaten dira oporretan? Saloura? Agian igerian Ibizara heltzen dira, ez dutenez ezer egiteko...

Kalean gorrian jarraitzen dute, betiko miseriak jasanez, gau askotan hotza eta gosea pasatzen kar-




Ioritz Rasero

toi artean lotan iraganeko oroimenak amesten dituzten bitartean.

Etxegabeko pertsonak ezin dira merkantzia moduztat erabili neguan bihotzak samurtzeko eta udan ahaztu: Urte osoan bizi dira! Eta ez, ez dituzte oporrik, ez sandaliarik, ez dira depilatzen, ez dute bainu jantzirik erosten ezta eguzki kremarik, eta dietan urte osoa ematen dute.

Non daude neguan telebistan ateratzen diren etxe gabeko pertsonak?



IKASTOLA
38 urte Ermua euskalduntzen




**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian tokiko



Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

PRO



- ARRAINDEGIA
- ITSASKIAK
- ARRAIN FRESKOAK ETA
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59
ERMUA

LANA

Alemaneko klaseak ematen ditut haur, gazte eta helduentzat. © 647 27 53 74



Ekainaren 10ean
Zorionak amatxo zure seme-alaben partez. Eutsi gogor lanari.



Uztailaren 5ean
Zorionak Lara zure urtebetetzean familiaren partez. Ondo pasa zure eguna eta musu handi bat.



Uztailaren 8an
Zorionak Eider zure 2. urtebetetzean eta musu handi bat familiaren partez.



Ekainaren 17an
Zorionak Aner zure guraso, aitona-amona eta izeba-osaben partez, Irama eta Aneren partez batez ere.



Ekainaren 23an
Zorionak aita eta musu handi bat Ainhoa, Maite eta amaren partez



Uztailaren 3an
Zorionak Libe eta musu handi bat etxeko guztion partez.



Ekainaren 7an
Zorionak Ziriako etxekoan partez.

Bidali zure zorion-agurra edo iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo Elexostera ekarri (Erdikokale 2, 1.).
Hurrengo zenbakirako azken eguna:

UZTAILAREN 11

ARTARRAI
OPARI DENDA

Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19
ERMUA

Zubiaurre 14
Telf. 943 17 28 88
48260 ERMUA

EGUZKI LORE

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Tresneria
- * Brikolaia
- * Rielak
- * Giltzak
- * Zerrailgintza
- * Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behe 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**MALLABIA
1932**

Zutik, ezkerretik eskumara: Justa Aranburu, Pilar Garitaonandia, Josefa Pagaldai, Eduarda Solozabal, Delfina Zabala, Jesusa Milikua, Maritxu Ortuzar, Maria Otalora eta Benita Landa.

Erdian: Miren Mallabiabarrena, Matilde Solozabal, Nieves Berasaluze, Benigna Markina, Vicenta Otalora eta Carmen Arregi. Behean, jarrita: Jesusa Amutxastegi, Aurelia Azpitarte, Martina Ziarsolo, Evarista Gallastegi, Rosina Arregi, Conchita _ , Jesusa Ormaetxea eta Jacinta Gallastegi.

**ERMUA
1995**

Ezker eskuin zutik: Pedro Zubizarreta, Irene Isasi-Isasmendi, Bibiano Lugarizaristi, Maria Jesus Jauregi, Alberto Ajuriaguerra, Maria Luisa Rementería, Milagros Arrizabalaga, Victor Sanildefonso, Lidia Bustindui, Miguel Yarza, Marisabel Ugalde, Carmen Lanás, Jose Luis Izagirre eta Fernando Unamuno.

Ezker eskuin makurtuta: Felix Ariztegi, Ignacio Ezkurdia, Lucia Areitioaurtena, Carmele Isasi-Isasmendi, Paco Arrizabalaga, Diego Arriaga, Victor Arrieta eta Ricardo Txurruka.

* Zure argazki zaharrak Drogeteniturrin kaleratzea nahi baduzu, ekarri Elexostera (Erdikokale 2, 1.) edo bidali posta elektronikoz drogeten@gmail.com helbidera.

Bar London
Komentukua 2, Ermua
Tif: 943173312

TOLDOS Y PERSIANAS ORBE

- MUNTAIA ETA KONPONKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2
Tel. 943 17 66 34
Tel. mugikorra 630 01 13 41
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1
Tel. 943 17 98 60
48260 ERMUA (Bizkaia)

Bolonia plana Unibertsitatean ezarri zenetik, aldaketa nabarmenak egon dira hezkuntza-legeetan. Horietako batek aurten izango du eragina ikasleengan lehen aldiz: Errekuperazioak, irailean egin beharrean, uztailan egin beharko dituzte.

Zer iruditzen zaie ikasleei aldaketa hau?

Alde onak eta txarrak dituela esango nuke. Irailera arte uda libre izatea oso gauza ona da, baina uztailan ikasgai asko dituztenek ez daukate denbora asko ikasteko. Niri 2 ikasgai falta zaizkit karrera bukatzeko eta uztailan gainditzea espero dut.



Enaitz Mugerza, 24 urte



Ondo iruditzen zait: uda libre daukazu eta datorren urterako zenbat ikasgai laga dituzun aurretik dakizu. Ikasleek presio gutxiago izango dute. Bestalde, ikasgai asko dituztenentzat ez da hain egokia. Gradu bat ikasten ari naiz eta aldaketa honek ez du eraginik nigan.

Marta Moreno, 19 urte




Jendearen arabera, aldaketa hau ona edo txarra izango da. Nik uste dut txarra dela. Ez baduzu gainditu arrazoiren bat egongo da, ezta? eta azterketa berriro prestatu behar baduzu egun batzuk ez dira nahiko izaten. Uda ikasteko aprobeztatzea ondo dagoela pentsatzen dut.

Rubén García, 20 urte

Nik nahiago dut uda libre izatea. Uztailan ikasitakoa 'fresko' daukazu oraindik eta errepasso batekin nahikoa izan daiteke. Abuztuan denbora asko dugula jakinda, azkeneko momentura arte itxaroten dugu eta ikasten hasi orduko azterketa gainean dugu.

Josu López, 17 urte



Irakaslea naiz eta oso ondo ikusten dut aldaketa hau. Ikasle banintz ere, ondo ikusiko nuke. Uztailan motorra martxan duzu eta errazagoa da ikasten jarraitzea. Gainera, abuztuan deskonektatzeko aukera ematen dizu aldaketa horrek.



Larraitz García, 35 urte




Oso ondo iruditzen zait. Ikasleoi ez zaigu gustatzen udan ikastea. Eguzkia ikusten duzu, lagunak kalean..., asko kostatzen da ikastea. Ekainean, berriz, erritmoa hartuta duzu eta errazagoa da errepassatu eta gainditzea.

Jon Etxebarria, 20 urte

Amaia Arriaga eta Dorleta Vidal

akerlei
HEZIKETA-ZENTROA



Bizkaia etorbidea 5
48260 - Ermua
943 17 66 32
akerlei@akerlei.com

HIRI-KANPAMENTUAK

- Ekainaren 27tik uztailaren 22ra.
- 9.30etik 13.30era.
- 6 eta 10 urte bitarteko umeentzat.
- Euskaraz eta ingelesez.

Eman izena lehen bait lehen!!

Eta irailean...

- Ingelesa, frantsesa eta alemana.
- Cambridge azterketak.
- Ume eta helduentzat.

...matrikula zabalik dago!

Uztailak 14, osteguna

- 19:00: Soka-tira plazan.
- 22:30: 'Buah txaball' kale ikuskizuna Valdespinan.

Uztailak 15, ostirala

- 16:00: Areto-futbol txapelketa kiroldegian.
- 19:00: Dantza emandaldia Txindurri taldea. Plazan.
- 22:30: Bertsolari jaialdia Valdespinan: Beñat Ugartetxea, Xumai Murua, Oihane Iguaran, Mikel Arrillaga, Beñat Lizaso eta Manex Agirre.

Uztailak 16, larunbata

- 10:00: Areto-futbol txapelketa Kiroldegian.
- 10:00: Arku-tiro proba plazan. Nahi duen guztiak parte hartuko du.
- 10:00: 'Urko 69etan ezetz!' III. Igoera kontrolatua, plazatik hasita.
- 10:00: 'Blood-bowl' txapelketa plazan.
- 11:00: Aldibereko xake partida azkarren XIII. lehiaketa, plazan. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.

- 11:00: Kolunbaireari tiraketa zabortegei ohian, entrenamenduak. (Lehiaketa 16:00etan)
- 16:00: Herrien arteko xake partida azkarren XVI. lehiaketa, San Martin plazan.
- 23:30: Gatibu taldearen kontzertua, plazan.

Uztailak 17, igandea

- 9:00: Nazio mailan bolo partida, San Pelaioko bolatokian.
- 9:30: Mendi-bizikleta-ko XVI. herri marxa, plazatik.
- 10:00: Areto-futbol txapelketa Kiroldegian.
- 10:00: Errol eta estrategia jokoak Lobianon.
- 11:30: Irratiz kontrolaturiko kotxeen 'Ermua Hiria' XIV. txapelketa, San Pelaio plazan.
- 16:00: Musika eta dantza jaialdia plazan: Maliko Fasoden eta Extremadurako Sierra de Alor taldeekin. Ondoren jaki tipikoen dastaketa.

Uztailak 18, astelehena

- 19:00: Soka-tira finala plazan.

- 21:00: Ogitarte eta edarien banaketa, salneurri bereziaz, plazan.
- 22:30: Txarangen abesti-lehiaketa, plazan. Irulitxak alaituta.

Uztailak 19, asteartea

19:00: Pepino eta Triatloia jokoak plazan.
22:30: Blues kontzertua: Belceblues. Valdespinan.

Uztailak 20, asteazkena

- 19:00: Jatorrizko pekatua eta Kuboak plazan.
- 22:30: Africa Baj Yai taldearen kontzertua plazan.

Uztailak 21 osteguna (Umeen eguna)

- 10:30: Buruhandiak plazan.
- 11:00-13:00 eta 16:00-19:00: Umeentzako parkea eta tailerrak plazan.
17:00: Umeentzako txokolate-jana plazan.
- 19:00: 'Love Power' musika-ikuskizuna, plazan, Kanpanolue taldea.
- 22:30: Acido C, Funky kontzertua Valdespinan.

Uztailak 22, ostirala

- 18:30: Paleta txapelketa finalak plazan.
- 22:30: Play-Back lehiaketa plazan.

Uztailak 23, larunbata

- 16:00: Txirrindularitza proba nazio mailan gazteentzat. Irteera eta helmuga Mallabiko errepidean (Garbigunea dagoen tokian).
- 16:30: IX. Mus txapelketa herrikoia plazan.
- 23:30: Los Mojinos Escocíos taldearen kontzertua San Pelaion.

BESTELAKOAK

- **Ekainaren 27tik uztailaren 3ra:** San Pelaioko jaiak.

- **Ekainaren 28tik uztailaren 23ra:** Eskultura erakusketa: Juanjo Gurrea, Lobiano Kultur Gunean.

- **Uztailak 2:** Elektrojaia. 15:00etatik 3:00etara. Valdespinan.

- **Uztailaren 7tik 9ra:** Sallabenteko jaiak eta erdi aroko azoka.

Patxi López

Harategia

M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak

GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA
J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

MIGUEL
Harategia

TXORIZOAK
ODOLOSTEAK


Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería
TITANIK


Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK





ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA



IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

HELBURUAK

1 Hizkuntza Eskakizuna
2 Hizkuntza Eskakizuna
3 Hizkuntza Eskakizuna
EGA

NOIZ

Irailaren 1etik 28ra

ORDUTEGIAK

9.00etatik 13.00etara
(80 ordu)

16.00etatik 20.00etara
(80 ordu)

MATRIKULAK UZTAILAREN 8-RA ARTE

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina

Goienkale z/g, 2. Solairua

Tel: 943 170925